



## ZUZENBIDEAN ARITZEKO (II) HASI PAUSOAK ERABAKITZEN

*Mikel Mari KARRERA EGIALDE*

**AURKIBIDEA: I. Pauso logikoak:** 1. Metodoa.-2. Teknika.-3. Pausu logikoak. **II. Pauso praktikoak:** 1. Informazioa biltzea.-2. Informazioa interpretatzea.-3. Informazioa sistematizatzea.-4. Kritika.

**Ikerketa** Zerbait berria ikasten hastean, ikerketako prozesu bat jartzen da martxa. Nola sortzen da ikerketa? Interesak eta nahiak eskatuta. Hain zuzen ere, ikasleek zuzenbidea ikasteko interesa eta nahia badutela *iuris et de iure* presumitu behar da eta, ondorioz, irakasleak gaiak praktikan duen garrantzia eta eragina azaldu behar baditu ere, gaiaren interesa behin eta berriz azaltzen aritu beharrik ez dauka derrigorrez.

**Nola eta norantz** Lehen zeregina, informazioa biltzea izango da, gero informazioa interpretatzea eta, bukatzeko, emaitza aditzera ematea:

- (1) Dagoen informazioa biltzea (sistematizazio berria).
- (2) Informazioa interpretatzea baina dagoen guztia jaso gabe.
- (3) Erakunde juridikoak gizartean duen funtzioa zehaztea.
- (4) Defendatutako interesak azaltzea.

### I. Pauso logikoak

Egoera	Bidea	Helburua
INFORMAZIOA	METODOA	ONDORIOZKO LANA

### 1. Metodoa

Zuzenbidea eskuratu eta aplikatzeko jarraibide egoki bat proposatzen du metodologiak, zeregina antolatzeko modua, alegia. Beraz, arazoa azaltzeko ibiltzen den bideak osatzen du metodoa eta berau aurrez erabaki behar den zerbait da, gero alda badaiteke ere: arazoa zehaztu, kontzeptuak eman, auresuposamenduak mugatu, aukerak adierazi, interpretazioko arazoak islatu, eta abar.



## 2. Teknika

Aukeratutako metodoak hainbat jarduera egitea eskatzen du. Jarduera horiek gauzatzeko moduak dira teknikak, alegia analisirako tresnak.

**Historikoa** Aurrekariak ezagutzea.

**Exegesikoa** Arauak erabiltzea.

**Konparatua** Zuzenbideak alderatzea.

**Interes-gatazka** Babestutako interesak alderatzea.

**Errealitate soziala** Gizarteko datuak jakitea.

**Errealitate politikoa** Gauzen izaera, soziologia, antropologia, ekonomia, azken batean pertsona arruntaren ikuspegitik arazoa ikustea.

**Doktrina zientifikoa** Erabiltzaile juridikoen eta legelarien iritziak biltzea.

## 3. Pauso logikoak

Edozein zeregin juridikoari ekiteko:

**Gaia zehaztu** Lan-eremua mugatu behar da, bereziki gizarteko errealitatea edo kasua zehaztuz, eta aldameneko arazoak kimatuz.

**Arazoa aztertu**

**Errealitate juridikoa**

Egitateak: suposamendua

Arauak: interpretazioa (helburua eta bideak, jurisprudenzian eta doktrinan).

**Kritikak** Proposamenak eta aukerak.

**Irtenbidea formalizatu**

**Formularioa** Eskriturak, kontratuak, prozesuak.

**Diktamenak** Txosten juridikoak.

**Lan idatziak** Ikerketa- eta sistematizatzeko lanak.



## II. Pauso praktikoak

Praktikan beti mugak jarritz bili behar da eta, irizpide sendorik ezin bada eman ere, oreka bilatu behar da lortu nahi den helburuaren eta erabiliko diren tresnen artean.

Pauso logiko haietatik, hala ere, zenbait aurrera eman ahal izateko tresnak erakutsi daitezke.

### 1. Informazioa biltzea

**Iturriak** Esaten da jakituri juridikoa nahiko egonkorra dela, iturrien sistema ezarrita dagoelako. Iturriak finkatzeko erabaki behar da zergatik zerbait iturri den eta zergatik beste bat ez den iturburu: legea, ohiturak, epaileen iritziak, autoreen iritziak, gizarteko praktika, estatistikak. Eta hala, batez ere gizarte-zientzietan, informazioa zer den zehazteko arazoa dago.

**Tresnak** Eragile juridikoen lanean bildu behar dira egitateak eta zuzenbidea, eta zuzenbidez jabetzeko, dokumentazio juridikoa bildu beharko da. Horretarako ezinbesteko tresna dira liburuak, aldizkariak eta erregistroetan jasotako dokumentuak.

Zehazki liburutegiek eta erregistroek zer jasotzen eta nola funtzionatzen duten jakitea ezinbestekoa da.

**Muga** Fase honetan sortzen den kezka izaten da erabakitzea noiz utzi informazioa biltzeari. Berez, ezinezkoa da gai bati buruz idatzi eta plazaratutako guztia biltzea. Egun, gainera, ekoizpen bibliografikoa izugarria da eta interneten dagoen informazioa ere itzela. Horregatik, egileak hoberen iruditzen zaiona aukeratu behar du eta gainerakoaz ezin du kezkatu; egiten ari den lanaren helburuak berak ere markatuko du bilaketaren muga.

*Culture is not derived from the reading of books, but from thorough and intensive reading of good books*  
Aldous HUXLEY (1930) *Reading, The New Vice*

*Culture is in danger of being buried under the avalanche of books and the mind is in danger of being paralyzed*  
Aldous HUXLEY (1932), *Too Many Books*

**Fitxa** Topatutako eta erabilitako dokumentuen datuak jasoko dira:

- (1) Batetik testuaren egilea, lekua eta garaia (data).
- (2) Bestetik testuaren izaera, kausa eta helburua.



## 2. Informazioa interpretatzea

**Prestakuntza** Irakasle bidezko prestakuntzan, helburua kontzeptuak irakastea eta ikastea da, zuzenbideari buruz irakurtzen edo entzuten duena uler dezan ikasleak.

**Irizpidea** Kontzeptuak azaltzeko eta informazioa interpretatzeko orduan, ezinezkoa da neutraltasuna mantentzea eta iritzi subjektiboak ezinbestekoak dira. Hala eta guztiz ere, oreka bilatu behar da: alderatu iritziak, agente juridikoenak eta gizarteko beste agenteenak. Horregatik, iritzia emateko irizpidea, zuzenbidean, zuhurtzia edo prudentzia (*iuris-prudentzia*) da, legelari (legea egin, aztertu eta aplikatzen duten) guztiek jarri beharrekoa.

**Helburua** Oro har, gauzak esateko orduan irudi klasikoa da zerbait berria esan beharra, baina, gaur egun, garrantzia dute ere erantzun berriek, galdera berriek, dagoen jakituria aztertzeak eta berriro bultzatzeak.

### Elementuak

**Kanpoko inguruabarrak** Testuingurua: gizartea, ekonomia, geografia.

**Barneko inguruabarrak** Oinarrizko ideiak, terminoen erabilera, metodologia, koherentzia. Frogatutako ideiak (tesia) vs. Frogatu gabeak (hipotesia / iritzia).

**Hausnarketa** bultzatzen duten teknologiak Idatzitako hitza (irakurtzea, idaztea) da hausnarketa (kritika, imajinazioa) ekartzen duen teknologia bakarra. Aldiz, audiobisuak berez ez dute tarte nahikorik uzten probetxuzko hausnarketa burutzeko.

### Bilakaera

**Lehen** Liburuak eta testu zabalak irakurtzea: ezaugarria = hausnarketa ostean, ideiak ateratzea.

*Ondorioa* Testuak ondo aukeratzea aurrez / autoritatea bilatzea.

**Orain** Internet erabiliz lortutako informazioa: ezaugarriak = irakurketa azkarra, testu laburrak, erabat batetik bestera saltoak eginez.

Datuak lortzea eta erabiltzeak ez du ekartzen edukiaz jabetzea; eskuratutako informazioak ez dakar ezagutza.

*Ondorioa* Zailtasunak daude bereizteko funtsezko informazioa eta lastoa (betelana).  
Erne Distrakzioak gehitu egin dira.

*Abantaila* Askotan informaziora heltzeko bidea jakitea nahikoa da. Zenbaitetan informazioa lortzeko denbora eta bidaiak aurretzen dira.



### 3. Informazioa sistematizatzea

**Errealitate juridikoa** Lehenik, suposamenduak edo egitateak zehaztu behar dira. Egitateak badiren edo ez diren zehaztu eta, errealitate juridikoa finkatzeko, frogak eta frogatutakoa hartuko dira kontuan.

**Araudia** Gero, egitateak ordenamendu juridikoan kokatu behar dira, hain zuzen ere zehazteko zein arau juridikok arautzen duen suposamendua edo frogatutako egitatea. Araua zehazteak esan nahi du legeak agindutakoa topatzea eta legearen eremua finkatzea (subjektuak, lurraldea, garaia).

**Zuzenbideko oinarriak** Hori egin ostean, argudio juridikoak, hau da, zuzenbideko oinarriak sistematizatu behar dira. Horra hor araua interpretatzearen beharra eta legearen hitzaurreak, doktrina legalak (jurisprudentiak) eta doktrina zientifikoak duten garrantzia.

**Gauzatzea** Lan juridikoa beti idatziz egitea komeni da, baita gero hitzez adierazteko ere. Azken batean, araua aplikatzea gehienetan idatziz egiten delako, bai lan teknikoetan (formularioak, demandak eta abar), bai bat-bateko praktikan (kasuari erantzutean). Azpimarratu behar da idazteko erabiltzen diren tresnek zerikusi handia dutela pentsamendua eratu eta sistematizatzeko moduarekin: Eskuz – Idazteko makina – Ordenagailua (ondo erabilia, ideiak pentsatzeko eta konpontzeko aukera gehitzen du)

### 4. Kritika

Ezein lan juridiko neurtu eta baloratzeko orduan, kontuan hartu behar dira hainbat irizpide:

**Egiazkotasuna** Burutzen den emaitzak beti errealitate material eta juridikoarekin bat egon behar du.

**Osotasuna** Lortu nahi den helburuaren arabera, emaitzak hasieran eskatutakoari erantzun behar dio erabat eta zuzenean.

**Objektibotasuna** Egilearen iritzi pertsonalek ez dute baldintzatu behar emaitza, eta haiek eman nahi badira esanbidez aipatu behar dira.

**Interesak** Lan juridikoak lortu nahi duen helburuaren interesa du ardatz nagusi. Baina diziplinarako orokorrean duen interesa ere kontuan hartu behar da.

**Balioa** Lan juridikoa testuinguru jakin batean kokatzen denez, kasuko errealitatea moldatzeko duen balioa neurtu behar da.

**Esanahia** Zenbaitetan, zer esan duen zehaztu ostean, zer esan nahi zuen sumatzea beste modu batera.